

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA



Gure proiektuaren helburu nagusia itsasoak eta ozeanoak babestea da, zikinkeria eta hondakinak uretara iristea saihesteko sare berezi baten bidez. Sare hau itsasoen kutsaduraren arazo gero eta larriagoari aurre egiteko sortu da, ekosistemetan eta gure bizitza-kalitatean duen eragin kaltegarria gutxitzeko. Sare hauek hondartzetan jarriko dira, Euskal Herriko hondartzetatik hasita, eta pixkanaka beste herrialde batzuetan ere jarriko dira. Sareak oztopo modura funtzionatuko du, plastikoak eta beste hondakin batzuk ozeano barrura sartu ez daitezen.

Proiektu honek ingurumenari onura handiak ekarriko dizkio, itsasoetan kontzentratzen den zabor kopurua murriztuko duelako. Honek biodibertsitatea babestuko du eta itsas espezieen bizi-kalitatea hobetuko du, zeren eta plastiko edo mikroplastiko gutxiago irentsiko dituzte. Gainera, itsas ingurune garbiago batek, giza osasunean ere eragin positiboa izango du, hala nola: mikroplastikoak eta plastikoak murrizteak gure elikadura-katea garbiagoa izatea eragingo du, itsasotik datozen produktuak kutsadura txikiagoarekin iritsiko direlako gure ahoetara. Horrela, itsas animaliak ez ezik, guk ere mikroplastiko gutxiago kontsumituko ditugu.

Proiektu hau aurrera eramateko, enprekin, elkarteekin eta erakundeekin lanean arituko gara. Hauek, lagundu egingo digute sareak modu eraginkor eta iraunkorrean instalatzeko. Gainera, gizartea kontzientziatzeko kanpainak antolatuko ditugu.